

IL AZALPEN PROBA • <i>Harry Potter eta sorgin-harria</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor *idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...*
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Eta, hala ere, han zegoen gutun bat, argi eta garbi berari zuzendua; ezin zitekeen hutsegitea izan:

*H. Potter jauna
Eskailerapeko Trastelekua
4 Privet Drive
Little Whinging
Surrey*

Gutun-azala sendoa eta astuna zen, pergamino horixkaz egina, eta helbidea tinta esmeralda berdez idatzia zegoen. Ez zeukan seilurik.

Gutun-azalari buelta ematean, eskua dar-dar, lakrezko zigilu gorri-morexka bat ikusi zuen, eta han armarri bat: lehoia, arranoa, azkonarra eta sugea zeuden “H” hizki handi bat inguratuz.

–Bizkor, mutikoa! –oihu egin zion osaba Vernonek sukaldetik–. Zertan ari zara, bonba-gutunik dagoen aztertzen, ala? –kar-kar barre egin zuen bere txisteagatik.

Harry sukaldera itzuli zen, artean bere gutunari begira. Osaba Vernoni faktura eta postala eman zizkion, eseri eta astiro gutun-azal horia zabaltzen hasi zen. Osaba Vernonek faktura urratu egin zuen, purrust egin atsekabez eta buelta eman zion postalari.

–Marge gaixo dago –jakinarazi zion izeba Petuniari–. Zikinkeriazen bat-edo jan omen...

–Aita! –esan zuen Dudleyk bat-batean–. Aita, Harryk zerbait dauka!

Harry gutuna destolesteko zorian zegoen, hura ere azala bezalako pergamino sendoan zegoen idatzia; bat-batean tira egin zakar eta eskutik kendu zion osaba Vernonek.

–Nirea da! –esan zion Harryk, berreskuratzen saiatuz.

IL AZALPEN PROBA • <i>Harry Potter eta Sorgin-harria</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu*ri* egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Harryk sekula ez zuen pentsatu Dudley baino gehiago gorrotatuko zuen mutilik ezagutuko zuenik, baina hori Draco Malfoy ezagutu baino lehen izan zen. Hala ere, Griffindorreko lehen urtekoek Edabeetako eskola bakarrik zuten Slytheringoekin; beraz, ez zeukaten Malfoy gehiegi jasan beharrik. Edo ez, behintzat, Gryffindorreko gelan paretan josita ohartxo bat ikusi zuten arte, guztiak kexarazi zituena. Hegaldi-eskolak ostegunean ziren hastekoak... eta Gryffindor eta Slytherin elkarrekin izango ziren hartan ere.

–Tipikoa! –esan zuen Harryk kopetilin–. Beti nahi izan dudana da horixe. Erratzaz barregarri geratzea Malfoynen aurrean. Beste edozertarako baino gogo handiagoa zuen hegan ikasteko.

–Zuk ez dakizu barregarri geratuko zaren ala ez –esan zion Ronek zentzuz–. Edonola ere, nik badakit Malfoy beti ari dela esaten bera oso ona dela quidditchean, baina apustu egingo nuke kontu hutsa dela dena.